

111 AKADEMIKAK EMANDAKO SARIA JASO ZUEN ATZO HARKAITZ CANOK

Amasako Hika txakolindegian jaso zuen atzo Harkaitz Canok 111 Akademiako kide diren irakurleek 'Fakirren ahotsa'-gatik eman dioten saria. Hainbat urtez Andoingo Bastero kulturgunean eman izan da saria. Aurten toki berria estreinatzen dutenez, ekitaldia ere berezia eta berria izan da. Canok 2018koa ez du lehenengo 111 Akademiaren Saria. 2011n ere lasarteak jaso zuen irakurleen saria 'Twist' eleberri-gatik. Susak argitaratuak dira biak. Orduko hartan Canok nahikoa izan zituen bi bozketako saria bereganatzeko. Aurten, berri, hiru egin behar izan dira.



Literatura eta politika uztartu ditu Hasier Arraizek bere lehen saiakeran

«Oraindik existitzen ez den mundu baten paisaia narratiboen bila» abiatu da, Ereinek argitaratu duen 'Maitasun keinu bat besterik ez' liburuan

:: NEREA AZURMENDI

DONOSTIA. 2016an aldendu zen politikagintzaren lehen lerrotik Hasier Arraiz (Gasteiz, 1973). Eusko Legebiltzarretik, EAEko Auzitegi Nagusiaren gaitasungabetze zigorrak behartuta. Sorturen presidentetzatik -uko egin zion berriro hautagai izateari- berak hala erabakita. Ordutik geroztik agerraldi politiko oso gutxi egin ditu. Gehiago mugildu da politikagintzari erabat emanda zegoenean ere garrantzi handikoa

zuen literaturan. «Literatura izan da beti nire babesgune pertsonala, nire pasioa», esan zuen atzo Donostian 'Maitasun keinu bat besterik ez' liburuaren aurkezpenean.

Izenburua ikaskide izandako Kirmen Uriberen 'Bisita' poematik hartu duen saiakeraren aurkezpenean, Gasteizko Letren Fakultatean Filologia ikasi zuen Arraiz literaturazalea azaldu zen Erein argitaletxeko Iñaki Aldekoaren ondoan. Militantzia politikoari oso gazterik atxiki zitzaiona ere bai, literatura eta politika uztartu baitzituen estreina-ko agerraldi literarioan. «Liburu aberatsa» osatu du, Aldekoaren ustez.

Literaturari dagokion atalean bere belaunaldiko idazleei erreparatu die, iragan mendeko 70eko hamarkadan «hautsita zegoen gizarte baten alde batean edo bestean» jaio zirenei. Hu-

renge hamarkadako pare bat ere bildu ditu 'euskal narratiba garaikidearen idazle belaunaldi berria' deituriko taldera. Hainbat ezaugarri partekatu -testuei zein testuinguri dagozkionak- zehaztu ondoren, atal-eko banatan aztertu ditu Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Mikel Perurarena Ansa, Unai Elorriaga, Ixiar Rozas, Karnele Jaio, Ur Apalategi, Lander Garro, Uxue Alberdi eta Katixa Agirre. Atal propioa du Arraizen ustez belaunaldi berriaren bidegiletzat jo daitekeen Kirmen Uribe.

Paradigma berria

Horien guztien merezimendu literario ukaezinak ez dira, ordea, Hasier Arraiz hamaikakoa osatzera eramandu duten balio bakarrak. «Idazle horiek zalantzan jartzen ari dira aurreko, paradigma literario berriak sortzen ari dira, mundu berri bat eraikitzeko proposamenak egiten». Azken batean, liberalismoaren laguntzaile eta morroi bilakatu den «posmodernismoa kuestionatzen eta eraldatzen, euskal ikuspegitik».

Hor txertatzen da bigarren zatia, 'Oraindik sortu ez den mundu berriaren paisaia narratiboen bila' izenburua duena. Hasier Arraiz ez da bakarrik ari Euskal Herri barneko kontuez. Euskal Herriak mundu zabalean izan dezakeen, izan beharko zukeen, tokiaz ere ari da. Beste herrialde batzuez ere bai, denak baitaibiltza «mundu zahar-berrian» toki bila.

Euskal Herriak, baina, baditu sendatu edo oraindu beharreko zauri berariazkoak, eta zentzu horretan behar du «bakea eta elkarbizitza eraikitzeko narratiba». Liburuan dio ETAK armak behin betiko alde batera utzteko erabakiaren berri eman zutenean hasi zela kontakizunaren lehia, 2011ko urriaren 21ean.

Zazpi urte eta erdi igaro dira ha-



Hasier Arraiz. :: MORQUECHO

rrezkerotzik, baina bizirik dirau lehiak. Erraz irekitzen dira ondo itxi gabeko zauriak, nonahi antzeman daitezke oraindik hondakinak, hainbat urtez bizitakoaren aztarnak. Eta ziklo hartan jarraitzen dute, nahita edo ezinbestean, hainbat heritarrek.

«Indarkeriak zubiak hautsi zituen; autokritika eta enpatia behar dira zubiak eraikitzeko», esan zuen Arraizek. Narratibak ere badu bere egitekoa eraikuntza lan horretan, liburuaren azalean agertzen dena bezain sendoak diren zubiak nahi badira, behintzat. Izan ere «narratiba erabil daiteke lehia areagotzeko edo zubigintzarako».

Bigarren aukera hori hobetsi du Arraizek, uste duelako ezinbestekoa dugula «euskal gizartea eta euskal nazioa kontatzeko modu berri bat», ez bakarrik barnera begira, baizik eta adierazteko nola egon nahi dugun munduan. Behar du, Arraizen ustez, idazleek ekarpenak aberastu dezakeen «kontakizun aspirazional partekatu eta integratzaile bat».

CRÍTICA
MARÍA JOSÉ CANO

POTENCIA ROMÁNTICA


ORQUESTA SINFÓNICA

DE EUSKADI
Interpretes: Orquesta Sinfónica de Euskadi; Alexei Volodin, piano. Director: Robert Treviño. Programa: 'Concierto para piano y orquesta nº 3, op. 30' de Rachmaninov; 'Sinfonía nº 5, op. 64' de Tchaikovsky. Fecha: 6-VI-19. Lugar: Auditorio Kursaal. Asistencia: Llano. Propina: 'Preludio op. 32, nº 12' de Rachmaninov por Alexei Volodin.

La OSE ha querido cerrar temporada con un programa romántico con el que a lo largo de su trayectoria ha conseguido expresivas interpretaciones y grandes triunfos, especialmente con una 'Quinta' de Tchaikovsky para la que parece estar hecha su sonoridad y su color. Ayer volvió a lucirse en esta obra, en una segunda parte a la que precedió el 'Concierto nº 3 para piano y orquesta' de Rachmaninov. Era un repertorio bien conocido y dominado por la Sinfónica de Euskadi que nos permitió escuchar al pianista Alexei Volodin y descubrir cómo concibe estas obras el titular de la orquesta Robert Treviño.

Rachmaninov fue un magnífico pianista y eso convierte sus 'Conciertos para piano' en verdaderos retos para los solistas. El 'Tercero' requiere, además, de un artista que sea capaz de mantener su fuerza durante mucho tiempo, ya que apenas hay descanso por el piano. En este aspecto Volodin hizo un verdadero alarde de potencia y resistencia, sin mostrar ni un signo de flaqueza y dejando bien claro su alto nivel técnico. Su lectura fue, sin embargo, algo turbia por un exceso de pedal y por un aparente deseo de dar la misma importancia a todo el entramado armónico y al acompañamiento que a las melodías. Esto, unido a unos pocos marcados acentos y a la falta de respiraciones hicieron difícil que el discurso se recibiera con total nitidez. Hubo retazos de sensibilidad para erizar la piel, pero se impuso el virtuosismo a la expresión.

Treviño puso su sello personal a la 'Quinta' de Tchaikovsky, que completó el encuentro. Lo hizo al optar por interpretar los cuatro movimientos sin pausa, al pedir unos matices imposibles a la orquesta -complicadísimo el papel de la trompa en el 'Andante' expuesto en pianissimo por la cuerda-, o al contrastar tempi y dinámicas hasta límites inhabituales, buscando efectos sorprendentes. La orquesta respondió con solvencia y ganas, con su cálida cuerda, sus extraordinarias maderas y, sobre todo con un hermoso y empastado sonido.



Nunca es demasiado tarde para perseguir un sueño.

YA EN CINES